



Jurisprudentziaren hiru hileko begirada 2023ko uztaila-iraila

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (EBJA)
Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA)

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2023ko abendua**



www.ararteko.eus
international@ararteko.eus



Laburpen honetan, EBko Justizia Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2023ko uztailetik irailera emandako epaiak jaso dira, Arartekoaren lan-arlo batzuetan interesekoak izan daitezkeelakoan. Txostenean ageri diren epigrafeen sailkapena Arartekoaren lanaren egituraketaren arabera da. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak epaiak hautatu ditu, eta horien laburpena egin. Arartekoak ez du inolako erantzukizunik hartuko laburpen horien gaineko erabileragatik; ildo horretan, aipaturiko ebazpen judizialen edukirako igorpena egiten du, erabakiez zehatz-mehatz jakiteko.



Obrak lizentzia hau du: [Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional \(CC BY 4.0\)](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/)



Arartekoaren argitalpenak ikusteko:

- [webean](#)
- [posta elektronikoz eskatuta](#)
- aurrez aurre, hiru bulegoetako edozeinetan, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKOA

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa



EDUKIEN TAULA

EB-REN ESKUMEN-EGITURARI BURUZKO EPAIAK.....	6
EBko agentziak: Frontex.....	6
T-600/21, WS eta beste batzuk / Frontex, 2023ko irailaren 6a (EBJA)	6
EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA).....	7
Oinarrizko eskubideak: «Non bis in idem» printzipioa.....	7
C-27/22, Volkswagen Group Italia SpA, Volkswagen Aktiengesellschaft eta Autorità Garante della Concorrenza e del Mercato, 2023ko irailaren 14a (EBJA).....	7
Emakumeen berdintasuna / LGTBI pertsonak.....	8
Semenya versus Suitza, 2023ko uztailaren 11 (GEEA).....	8
Haurrak / Familia	9
D.R. versus Norvegia eta beste batzuk, 2023ko irailaren 12a (GEEA)	9
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna / Gizarte Segurantzza.....	10
C-113/22, DX eta GSIN eta GSDN, 2023ko irailaren 14a (EBJA)	10
LGTBI pertsonak	11
Lenis versus Grezia, 2023ko ekainaren 27a (GEEA)	11
Adinekoak / Askatasunaz gabetutako pertsonak.....	13
Calvi eta C.G. versus Italia, 2023ko uztailaren 6a (GEEA)	13
Presoak	13
B.M. eta beste batzuk versus Frantzia, 2023ko uztailaren 6a (GEEA)	14
Datuen segurtasuna / babesa.....	14
Glukhin versus Errusia, 2023ko uztailaren 4a (GEEA)	14

EB-REN ESKUMEN-EGITURARI BURUZKO EPAIAK

EBko agentziak: Frontex

EBJA

1. [T-600/21, WS eta beste batzuk/ Frontex](#), 2023ko irailaren 6a
- [Mugen eta Kostaldean Europako Guardiari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko irailaren 14ko 2016/1624 \(EB\) Erregelamenduaren](#)¹ 27., 28. eta 34. artikulua
- [Nazioarteko babes emateko eta kentzeko prozedura erkideei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/32/EB Zuzentarauaren](#) 2., 4., 6., 8. eta 31. artikulua.
- [Egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako herritarrak itzultzeko estatu kideetako arau eta prozedura komunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/115/EE Zuzentarauaren](#) 6. artikulua.

Siriako errefuxiatu batzuen kalte-ordainen errekurtsoa Frontexen aurka, legez kanpoko jokabidea izateagatik, Greziatik Turkiara itzuli ondoren. Errekurtso horrek Frontexek oinarrizko eskubideen babesaren arloan duen eskumen-esparrua argitu zuen.

EBJAK Frontexen eskumen-esparrua mugatu zuen Siriako zenbait errefuxiatu Frontexeko oinarrizko eskubideen funtzionarioaren aurka aurkeztutako errekurtsoa ezetsi zuen erabaki batean. Errekurtsoa Greziatik Turkiara itzuli aurretik, bitartean eta ondoren ustez legez kanpoko jokabidea izan zuelako jarri zuten, Frontex eta Grezia batera aritu ziren itzultzeko operazio batean. Errekurtsoan, errefuxiatuek argudiatu zuten Frontexek itzulera-operazioaren testuinguruan oinarrizko eskubideak babesteko betebeharrak bete izan balitu, ez zitzaizkiela legez kanpo itzuliko Turkiara, eta nahi zuten eta eskubidea zuten nazioarteko babes lortuko zuketela. Zehazki, baieztatu zuten Frontexek honako hauek urratu zituela: ez itzultzeko printzipioa, asilo-eskubidea, kanporatze kolektiboaren debekua, adingabeen eskubideak, tratu laido garrien debekua eta administrazio onerako eskubidea eta benetako babes judizialerako eskubidea.

EBJAK aitortu zuen, 2016/1624 Erregelamenduaren arabera, Frontexek oinarrizko eskubideak errespetatu eta babestu behar dituela bere agintea gauzatzean, bereziki Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Hala ere, 2016/1624 Erregelamenduari bat etorritik, Auzitegiak argitu zuen pertsonak itzultzeko operazioei dagokienez, Frontexen egitekoa estatu kideei laguntza tekniko eta operatiboa ematea dela, eta ez dituela itzultzeko erabakiaren arrazoiak aztertu behar. Azterketa hori egitea estatu kideen eskumen eksklusiboa da, 2008/115/EE Zuzentaruaren jasotzen den bezala; nolana ere, operazio horien berri eman behar diote Frontexi, 2016/1624

¹ 2016/1624 (EB) Erregelamendua errekurtsoari denboragatik aplikatu beharrekoa bazen ere, erregelamendu hori indargabetu egin zuen [Mugen eta Kostaldean Europako Guardiari buruzko 2019/1896 \(EB\) Erregelamendua](#), gaur egun indarrean dagoenak.

Erregelamenduari jarraikiz. Nazioarteko babes-eskaeren azterketari dagokionez, EBJAk adierazi zuen 2013/32/EB Zuzentarauak estatu kideei ematen diela arlo horretako eskumen eskusiboa. Beraz, EBJAk errekurtsioa ezetsi zuen. Izan ere, ondorioztatu zuen errefuxiatuek ez zutela frogatu alegatzen zituzten kalteen eta Frontexi egozten zioten jokabidearen arteko kausazko lotura nahikoa zuzenik.

EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA)

Oinarrizko eskubideak: «Non bis in idem» printzipioa

EBJA

2. [C-27/22, Volkswagen Group Italia SpA, Volkswagen Aktiengesellschaft eta Autorità Garante della Concorrenza e del Mercato](#), 2023ko irailaren 14a

- [Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren](#) (Gutuna) 50. artikulua.

Italiako Estatu Kontseiluak planteatutako arazo prejudiziala, non bis in idem printzipioaren irismena mugatzeko aukerari buruzkoa; zehazki, bi estatu kideetan zehapen-emaiza duten prozeduren bikoiztasuna dagoen kasu batean, jarduera-sektore desberdinetan eskumena duten agintariak gauzatua.

Epai horretan, EBJAk adierazi zuen merkataritza-jardunbide desleialengatik kontsumitzaileak babesteko eskumena duen agintaritza nazionalak sozietate bati ezarritako administrazio-isuna, araudi nazionalak administrazio-zehapen gisa kalifikatu bazuen ere, zehapen penala dela, Gutunaren 50. artikulua ondoz ondo, baldin eta isunak zigor-helburua eta larritasun handia baditu.

Jarraian, Auzitegiak adierazi zuen Gutunaren 50. artikuluan jasotako *non bis in idem* printzipioaren arabera, araudi nazionalak ezin duela merkataritza-jardunbide desleial horiengatik pertsona juridiko bati ezarritako zehapen penala mantendu, baldin eta entitate horrek beste estatu kide batean egitate horiengatik zigor penala jaso badu. Aurrekoa eraginkorra da, nahiz eta zigorra isuna ezartzeko ebazpenaren data baino geroagokoa izan, baina irmo bihurtu bada ebazpen horren aurka hasitako prozedura judizialean emandako epaiak gauza epaituaren indarra hartu baino lehen.

Azkenik, Justizia Auzitegiak adierazi zuen Gutunaren 52.1 artikulua *non bis in idem* printzipioaren aplikazioa mugatzea onartzen duela, egitate berberengatik prozedurak edo zehapenak bikoiztea ahalbidetzeko, betiere Gutunaren 52.1 artikuluan ezarritako eta jurisprudentziak zehaztutako baldintzak betetzen badira: Lehenik eta behin, bikoizte horrek ez du gehiegizko kargarik ekarri behar interesdunarentzat; bigarrenik, arau argi eta zehatzak egon behar dira, bikoizketa egiteko arrazoï izan daitezkeen egintzak edo ez-egiteak zein diren zehazteko; eta hirugarrenik, prozeduren bikoiztasuna behar bezala koordinatuta eta hurbileko epeetan egin behar da.

Emakumeen berdintasuna / LGTBI pertsonak

GEEA

3. [Semenya versus Suitza](#), 2023ko uztailaren 11 (demandaren zk.: 10934/21)

World Athletics-en arautegien aurkako errekurtsioa; izan ere, testosterona maila altuko nazioarteko atleta bat hormona-tratamendua jasotzera behartzen zuten, emakumeen kategoriako nazioarteko lehiaketetan parte hartu ahal izateko.

-GEEHren 14. artikulua (diskriminazioaren debekua), GEEHren 8. artikuluekin batera (bizitza pribatua eta familia bizitza izateko eskubidea): urraketa.

-GEEHren 13. artikulua (bidezko errekurtsorako eskubidea): urraketa.

Intersexualentzat hartutako erabaki historiko batean, GEEAk Suitza kondenatu zuen atleta baten sexuagatik eta sexu-ezaugarriengatik (zehazki, ezaugarri genetikoak) diskriminaziorik eza jasotzeko eskubidea ez babesteagatik; izan ere, atletismo-lehiaketetatik kanpo uzten zuten testosterona maila altua izateagatik, garapen sexualaren aldaketen ondorioz. Lehenengo aldia da Auzitegiak sexu-ezaugarriengatik diskriminazioa (zehazki pertsona intersexualen kasua) Hitzarmenean debekatzeko dela aitortu duela (GEEHren 14. artikulua). Gainera, kasu horretan, GEEAk adierazi zuen pertsona baten sexu-ezaugarriak bere bizitza pribatuaren esparrukoak direla, eta lehiatzeko hormona-tratamendua jasotzeko eskatzeak eragin zuzena izan zuela haren identitate pertsonalean. Auzitegiak diskriminazioaren debekua eta bizitza pribatua izateko eskubidea konbinatzen ditu (GEEHren 8. artikulua).

Demanda Caster Semenya Hegoafrikako nazioarteko atletak jarri zuen, Atletismo Amateurreko Nazioarteko Federazioaren (IAAF, ingelesezko siglen arabera; egun *World Athletics* deitzen da eta Monakon erregistratutako erakunde pribatua da) zenbait arautegiren aurka ("Emakumeen sailkapenerako onargarritasun-arauak"). Arau horiek hura eta beste emakume batzuk hormona-tratamendua jasotzera behartzen zituzten, beren testosteronaren berezko maila murrizteko, emakumeen kategoriako nazioarteko lehiaketetan parte hartu ahal izateko. Atletak tratamendu hori jasotzeari uko egin zionez, ez zioten nazioarteko lehiaketetan parte hartzen utzi. Atletak arau horien aurka Kirolaren Arbitraje Auzitegian (TAS, frantsesezko siglarengatik) eta, ondoren, Suitzako Auzitegi Federalean jarritako errekurtsioak ezetsi egin ziren.

Abiapuntu gisa, GEEAk *ratione personae* eta *ratione loci* eskumenak zituela baieztatu behar izan zuen, Monakon egoitza duen IAAF erakundearen eta atletaren arteko kirol-arbitraje batean jatorria duen kasurako, baina azterketa TASen eta Suitzako Auzitegi Federalaren aurreko prozeduretan ardatzen zen. Auzitegiak adierazi zuen IAAFek ezarritako arbitraje-sistemak atletak auzitegi nazionalera jotzeko aukera baztertzeko zuela; horren ondorioz, demandatzaileak ezin zuen bere herrialdeko edo beste herrialde bateko auzitegietan errekurtsorik jarri. Testuinguru horretan, GEEAk horrelako kasuak aztertzeke eskumena duela baieztatu zuen, emakume atletei GEEAra jotzea eragotziko dien hutsunea saihesteko; izan ere, hori Hitzarmenaren espirituaren eta asmoaren aurkakoa litzateke.

GEEAk diskriminazioa egon zela adierazi zuen, ezarri baitzuen, lehenik eta behin, atletari tratamendu desberdina eman zitzaiola egoera berean zeuden beste emakume batzuen aldean. Jarraian Monakon erregistratutako IAAF erakundeak ezarritako arauak dagokienez Suitzaren erantzukizuna aztertu zuen, eta, hala badagokio, Suitzak kasu horretan izan zezakeen balorazio-marjina. GEEAk azterketaren hasieran gogorarazi zuen sexuan bakarrik oinarritutako tratu bereizgarria justifikatzeko “pisu handiko arrazoiak”, “arrazoi bereziki larriak” edo “arrazoi bereziki garrantzitsu eta sinesgarriak” behar direla, eta gauza bera aplikatu behar zaiola sexu-ezaugarriengatik edo pertsona intersexual izateagatik tratu bereizgarriari; halaber, adierazi zuen Estatuaren diskrezionalitatea mugatuta dagoela, pertsona baten existentziaren alderdi bereziki garrantzitsu bat edo bere nortasuna bera jokoan baitago. Suitzaren erantzukizunari dagokionez, GEEAk adierazi zuen Suitzako sistema judizialak ez ziola berme instituzional eta prozesal nahikorik eman demandatzaileari; izan ere, arbitraje-sistemak zenbait muga ezartzen dizkie atleten babes juridikoari, defentsa-gabezia eragiteraino. Horrela, atletok kirol-erakunde boteretsuei aurre egin behar diete arbitraje-egoitzan, eta, bigarren auzialdian, auzitegiak arbitraje-erabakiaren edukira mugatu behar dira. Gainera, Auzitegiak honako hauek balioztatu zituen: TASek edo Suitzako auzitegiak ez zuten aztertu IAAFen arauak funts zientifikoetan oinarritzen ziren ala ez, eta ez zituzten kontuan hartu atletari ezarritako hormona-tratamenduaren albo-ondorio “esanguratsuak”, pertsona bat tratamendu bat jasotzera behartzeak pertsona horren duintasunean duen eragin zuzena aztertu gabe.

Azkenik, GEEAk baieztatu zuen demandatzaileak bidezko errekurtso bat jartzeko eskubidea urratu zela (GEEHren 13. artikulua), Suitzaren erantzukizuna ezartzea ahalbidetu zioten arrazoi berberengatik, berme instituzional eta prozesal nahikorik eman ez ziolako. Zehazki, Auzitegiak adierazi zuen TASek eta Suitzako auzitegiak ez ziotela erantzun atletaren diskriminazio-demandari.

Antzeko beste epai batzuk: Mutu eta Pechstein versus Suitza, 2018ko urriaren 2a, demanda zk.: [40575/10](#) eta [67474/10](#); Platini versus Suitza, 2020ko martxoaren 11, demanda zk.: [526/18](#). Gainera, GEEAk honako dokumentu hauek aipatu zituen: “Kiroleko arraza- eta genero-diskriminazioaren arteko elkargunea” ([A/HRC/44/26](#)), Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoarena, 2020ko ekainaren 15ekoa; [2465 \(2022\) Ebazpena](#), “Berdintasunaren aldeko borroka – Kirolean emakumeen aurkako diskriminazioa desagerraraztea”, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrarena (APCE), 2022ko urriaren 13koa; Berdintasun eta Diskriminaziorik Ezaren Batzordearen 2022ko irailaren 22ko [txostena](#), APCEren 2465 (2022) Ebazpenari buruzkoa.

Haurrak / Familia

GEEA

4. [D.R. versus Norvegia eta D.J. eta P.J. versus Norvegia](#), 2023ko irailaren 12a (demanda zk.: 63307/17 eta 38105/19); [K.F. eta beste batzuk versus Norvegia](#), 2023ko irailaren 12a (demanda zk.: 39769/17 eta 5 gehiago); eta [S.S. eta J.H. versus Norvegia](#), 2023ko irailaren 12a (demanda zk.: 15784/19)

GEEAren hiru erabaki, honako gai hauei buruzkoak: alde batetik, gurasoei beren guraso-ahala kentzea eta seme-alabak adopzioan ematea haien borondatearen aurka; eta, bestetik, gurasoen eta seme-alaben arteko

harremanari mugak jartzea edo babespeko seme-alabekin harremanetan jartzeko erabateko ezintasuna.

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea): urraketa.

Epai horiek GEEAk azken hamarkadan adingabeak babesteko Norvegiako sistemari buruz emandako erabakien sagaren zati dira. Erabaki horietako batzuk kondena-epaiak izaten amaitzen dute; beste demanda batzuk, ordea, ez dira onartzen. Kasu honetan, hiru epaiak, bederatzi demanda barne hartzen dituztenak, egun berean eta Epailen Batzorde berak eman zituen. Bi egun geroago, Epailen Batzorde berak erabaki zuen ez zirela antzeko 12 demanda onartuko, uste baitzuen Norvegiako agintariek ez zutela akats nabarmenik edo arbitrariotasunik egin edo familia-loturarik hautsi.

Kondena-epaiak eta onartu gabeko demandek GEEAk printzipio gidari batzuk garatzea ekarri zuten, tutoretza publikoaren esku utzitako haurrek planteatutako auziei dagokienez. Hala, GEEAk baieztatu zuen adingabeak babesteko neurriei dagokienez, estatuek irizpidezko ahal zabala dutela haur baten harrera erabakitzeko orduan. Hala ere, Estrasburgoko Auzitegiak esan zuen auzitegi nazionalak "azterketa zorrotzagoa" egin behar dutela harrerarekin lotutako beste edozein neurrii dagokionez, hala nola haurren gurasoen bisita-eskubidea murriztea. Auzitegiaren jurisprudentziak, horri dagokionez, adingabearen eta haren familia biologikoaren interes gorenaren artean haztatzeko beharra aipatu zuen. Adopzioari dagokionez (familia biologikoarengandik banaketa dakarrenean), GEEAk adierazi zuen "salbuespeneko inguruabarrek" eta adingabearen interes gorenak justifikatu behar dutela.

Antzeko beste epai batzuk: Strand Lobben eta beste batzuk versus Norvegia, 2019ko irailaren 10a (demanda zk.: [37283/13v](#)), K.O. eta V.M. versus Norvegia, 2019ko azaroaren 19a (demanda zk.: [64808/16v](#)), A.S. versus Norvegia, 2019ko abenduaren 17a (demanda zk.: [60371/15](#)), M.L. versus Norvegia, 2020ko abenduaren 22a (demanda zk.: [64639/16](#)), Abdi Ibrahim versus Norvegia, 2021eko abenduaren 10a (demanda zk.: [15379/16](#)), eta A.L. eta beste batzuk versus Norvegia eta E.M. eta beste batzuk versus Norvegia, 2022ko urtarrilaren 20a (demanda zk.: [45889/18](#) eta [53471/17](#)).

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna / Gizarte Segurantzza

EBJA

5. [C-113/22, DX eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia](#), 2023ko irailaren 14a

- [Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentaraua, 1978ko abenduaren 19koa, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa gizarte-segurantzaren arloan pixkanaka aplikatzeari buruzkoa](#)

Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak (GJAN) planteatutako arazo prejudiziala, bi seme-alaba edo gehiagoren aitei ezintasun iraunkorreko pentsioaren seme-alabak izateagatiko osagarria sistematikoki ukatzean datzan administrazio-jardunbideari buruzkoa. Osagarri hori, aldiz, antzeko egoeran zeuden amei ematen zitzaien.

Kasua bi seme-alaba dituen aita batek hasi zuen, zeinak GSINek aitortutako ezintasun iraunkor absolutuko prestazio bat zuen. Prestazio horri buruzko administrazio-prozeduraren esparruan, aita ez zuen berariaz eskatu, eta ez zitzaion ofizioz aitortu, erretiro-pentsioetarako, ezintasun iraunkorrerako edo alarguntasun-pentsioetarako “amatasun” osagarria jasotzeko eskubidea (GSLOren 60.1 artikulua). Interesdunak osagarri hori jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaera aurkeztu zuen GSINen, EBJAren 2019ko abenduaren 12ko epaian oinarrituta ([C-450/2018](#)). Epai horretatik ondorioztatzen da GSLOren 60. artikulua 79/7 Zuzentarauaren aurkakoa dela, eta beraz GSINek eskaera ukatzea erabaki zuen. Jarraian, interesdunak demanda bat jarri zuen Gizarte Arloko Epaitegian, zeinak partzialki aitortu zuen demandatzaileak pentsio-osagarria jasotzeko eskubidea zuela. Hala, interesdunak zein GSINek erabakia GJANan aurkeztu zuten. Kasua aztertu ondoren, GJANak erabaki zuen arazo prejudiziala EBJAri planteatzea, eta galdetu zion ea gizonen pentsio-osagarria sistematikoki ukatzeko jardunbidea —Espainiako araudia EBJAren 2019ko abenduaren 12ko epaira egokitu arte²—, zeinak bide judizialek erreklamatzera behartzen dituen, EBJAk adierazitakoaz bestelako diskriminaziotzat hartu behar den.

Lehenik eta behin, EBJAk ohartarazpen bat egin zien auzitegi nazionalen eta administrazio-agintaritzaren nazionalen, eta gogorarazi zien, behin arau diskriminatzaile bat Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela ezarrita, eta araudi nazionalak tratu-berdintasuna berrezartzen ez badu, xedapen nazional diskriminatzaile oro aplikatu gabe utzi behar dutela, botere legegileak indargabetu arte itxaron beharrik gabe. Ondoren, EBJAk adierazi zuen interesdunaren eskaerari ezezkoa emateko GSINen ebazpenak, arau eztabaidagarrian ezarritako baldintza materialen ondoriozko sexuagatiko zuzeneko diskriminazioa eragiteaz gain, beste diskriminazio bat sortzen duela gizonentzat, pentsio-osagarria ematea arautzen duten prozedura-baldintzei dagokienez; izan ere, gizonen bakarrak jo behar dute bide judizialera pentsio-osagarria jasotzeko eskubidea aitortu diezaieten, eta horrek osagarria lortzea atzeratzea eta gastu gehigarriak sortzea eragiten dizkie.

Horregatik guztiagatik, EBJAk GJANI erantzun zion GSDNri agindu behar diola eskatutako pentsio-osagarria emateko, eta, horrez gain, kalte-ordaina eman behar diola, diskriminazioaren ondorioz benetan jasandako kalteak osorik konpentsatzeko, aplikatzekoak diren arau nazionalen arabera. Kalte-ordainak prozedura judiziala dela-eta interesdunak izan dituen kostuak eta ordainsariak barne hartuko ditu, betiere GSINen ebazpenak EBJAren 2019ko epaia alde batera utzi badu, interesdunari bide judiziala baliatzea behartuz osagarri hori jasotzeko eskubidea aitortzeko.

LGTBI pertsonak

GEEA (erabakia)

6. [Lenis versus Grezia](#), 2023ko ekainaren 27a (demandaren zk.: 47833/20)³

Greziako eliza ortodoxoko goi-kide batek, bere blog pertsonalean homosexualen aurkako gorrotoa eta indarkeria sustatzeko artikulua bat

² “Amatasunagatiko” pentsio-osagarria indarrean egon zen otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretuak, genero-arrakala murrizteko eta gizarte-segurantzaren eta ekonomiaren eremuetako beste gai batzuetarako neurriak hartzen dituenak, aldatu zuen arte.

³ Demanda ez onartzeko erabakia 2023ko abuztuaren 31n jakinarazi zen, eta horregatik sartu da Jurisprudentiaren hiru hileko begiradaren edizio honetan.

argitaratzeagatik, haren aurkako zigorraren aurka GEEAren aurrean aurkeztutako demanda.

-GEEHren 10. artikulua (adierazpen-askatasuna): urraketarik ez.

-GEEHren 17. artikulua (eskubide-abusua debekatzea): urraketarik ez.

Demanda Greziako eliza ortodoxoko kide batek aurkeztu zuen. Izan ere, artikulua bat argitaratu ondoren (izenburua: "Gizartearen zaborra berpiztu da! Izan gaitezen zintzoak, txiki-txiki egin ditzagun!"), Greziako agintariek delitu txikiagatik kondenatu zuten, sexu-orientazioa dela-eta pertsonen aurkako indarkeria eta gorrotoa publikoki sustatzeagatik, [Arraza-diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin](#) (1965ekoa, Greziak berretsia) eta [Europar Batasuneko Kontseiluaren 1008/913/JAI Esparru Erabakiarekin](#) bat etorri. Artikulua argitaratu zenean, Greziako Parlamentua bikote homosexualen batasun zibila gaitzeko lege bat⁴ eztabaidatzen ari zen. Artikulua askotan partekatu zen Interneteko hainbat orritan, sare sozialetan eta komunikabideetan. Kritikak ikusita, demandatzaileak beste testu bat argitaratu zuen bere artikulua politikariei zuzenduta zegoela argitzeko.

GEEAk auzitegi nazionalen ondorioa babestu zuen, hau da, demandatzailearen iruzkinak, oro har, homosexualen aurka zuzendu zirela, eta adierazi zuen demandatzaileak ezin zuela adierazpen-askatasunaren babesa erreklamatu (GEEHren 10. artikulua), Hitzarmenak jasotzen duen eskubide-abusuaren debekuaren arabera (GEEHren 17. artikulua). Debeku hori salbuespen gisa aplikatzen da, eta haren helburua da estatu, talde edo pertsona batek GEEHren xedapen bat GEEHn aitortutako eskubide edo askatasunak suntsitzeko helburua duen jarduera edo egintza bat egiteko eskubidea ematen diola interpreta dezan eragozte.

Hori ondorioztatzeko, GEEAk, lehenik eta behin, aurkaratutako artikuluen izaera, edukia, tonua eta testuingurua aztertu zituen. Artikuluak indarkeria bultzatzen zuten baieztapenak zituen, eta sexu-orientazioagatik definitutako pertsona-talde baten aurkako gorroto-diskurtso gizagabea zen. Auzitegiak azaldu zuen demandatzaileak homosexualen gizatasuna ukatzen zuten adierazpen gogorak erabili zituela, eta bere iritzia adieraztetik haratago zihoazela. Gainera, artikuluak indarkeria bultzatzen zuten agindu ugari jasotzen zituen, zeinak hitzez hitz interpretatzeko ematen ziren argi eta garbi. Agindu horiek guztiek estresa, estutasuna eta izua eragin ziezaieketen homosexualiei; izan ere, testuko gorroto-diskurtsoarekin batera, indarkeria bultza zezaketen.

Ondoren, GEEAk demandatzailearen gizarte-maila gogoan hartu zuen; izan ere, Greziako eliza ortodoxoko goi-kide den aldetik, bere kongregazioan ez ezik, greziar biztanle gehienetan ere eragiteko gaitasuna zuen. Hirugarrenik, Auzitegiak eskatzaileak mezua zabaltzeko erabili zuen kanala aipatu zuen. Testua Interneten argitaratu zen, eta, ondorioz, mezua erraz kopiatu zuten hainbat komunikabidek eta oraindik sarean dago eskuragarri. Azkenik, demanda ez onartzeko erabakia berresteko, GEEAk homosexualitatearen onarpen-maila baxuen eta LGTBI pertsonen Grezian bizi duten egoera zailaren berri ematen duten nazioarteko erakundeen txostenak aipatu zituen.

Beste epai batzuk: Vallianatos eta beste batzuk versus Grezia, 2013ko azaroaren 7a, demanda zk.: [29381/09](#) eta [32684/09](#); Roj TV A/S versus Danimarka, 2018ko maiatzaren

⁴ Legea 2015eko abenduaren 24an jarri zen indarrean, eta GEEAk [Vallianatos eta beste batzuk versus Grezia kasuan](#) 2013ko azaroaren 7an hartutako erabakiaren ondoren onartu zen. Erabaki horretan Grezia kondenatu zuen, batasun zibilei buruzko araudiak sexu bereko bikoteak baztertzeko zitelako, eta horrek diskriminatuak ez izateko eskubidea urratzen zuen.

24a, demanda zk.: [24683/14](#); Lilliendahl versus Islandia, 2020ko maiatzaren 12a, demanda zk.: [29297/18](#).

Adinekoak / Askatasunaz gabetutako pertsonak

GEEA

7. [Calvi eta C.G. versus Italia](#), 2023ko uztailaren 6a (demandaren zk.: 46412/21)

Adineko bati ezarritako legezko tutoretzaren araubidearen aurkako demanda. Pertsona hori adinekoentzako egoitza batean sartu zuten gizarte-isolamenduko erregimenean hiru urtez, eta ez zuten familiarekin harremanik izan.

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea): urraketa.

Demanda C.G. izeneko adineko batek jarri zuen, lehengusuaren, Calvi jaunaren, ordezkartzaren bitartez. Kasuak epaileak C.G.ri legezko tutoretza ezartzeko hartutako erabakian du jatorria. C.G.ren arrebak hasi zuen tutoretza-prozesua, baina urtebete geroago arrebak eta C.G.k batera eskatu zuten amaitzeko, inguruabarrak aldatu zirela alegatuz. Eskatutakoa alde batera utzita, gizarte-zerbitzuek legezko tutoretza beharrezkotzat jo zuten, eta, urte batzuk geroago, epaile batek C.G.ren legezko tutoreak C.G. adinekoentzako egoitza batean sartzeko egindako eskaera onartu zuen. Telebista-programa batek C.G.ren kasua dokumentatu eta hura egoitzan sartzeko legezketasuna zalantzan jarri ondoren, legezko tutoreak C.G.ri hirugarren pertsonekin harremanetan jartzea debekatu zion. Askatasunaz gabetutako pertsonen Italiako bermatzaile nazionalak hainbat gomendio eman zizkion fiskaltzari C.G.ren kasua berrius zezan, baina ez zuten erantzunik jaso.

GEEAk adierazi zuen tutoretza ezartzea eta, horren ondorioz, gizarte-isolamenduko erregimenean sartzea injerentzia bat dela GEEHren 8. artikuluan jasotako eskubidean, hots, demandatzailearen bizitza pribatuan. Nahiz eta C.G.ri ezarritako araubidea legean xedatuta egon eta erabakiak helburu legitimoa izan, Auzitegiak aipatu zuen isolamendu-erregimenean sartzea ez zela izan proportzionala eta ez zettorrela bat demandatzailearen egoerarekin. Gai horri buruz, GEEAk gogorarazi zuen, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidearekin bat etorri (GEEHren 5. artikulua), gaixotasun mental bat duen pertsona bati egoitza- eta gizarte-laguntza emateko behar objektiboak ez lukeela, automatikoki, askatasunaz gabetzeko neurririk ekarri behar. Auzitegiak honako hauek aipatu zituen: Tortura Prebenitzeko Europako Batzordeak berriki Italiako epaileei egindako gomendioak, legezko tutoretzapean dauden eta adinekoentzako egoitzetan dauden pertsonen bisita gehiago egin diezaieten, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordeak Italiari igorritako azken txostena, desgaitasuna duten pertsonen askatasun-gabetzea debekatzea iradokitzen duena. Gainera, Auzitegiak adierazi zuen instituzioek ez zutelarik hartu demandatzailea etxera itzultzea prestatzeko, nahiz eta neurria behin-behinekoa izan. Azkenik, GEEAk adierazi zuen, kasu horretan, Italiako babes-sistemaren malgutasunak aukera eman zuela legezko tutoretza bidegabe ezartzeko, legezko mugak behartuz nahitaezko tratamendu medikoaren prozeduraren testuinguruan.

Presoak

GEEA

8. [B.M. eta beste batzuk versus Frantzia](#), 2023ko uztailaren 6a (demanden zk.: 84187/17 eta beste 5)

Fresnesko Atxiloketa Zentroko atxiloketa-baldintzak, hala nola pilaketa eta bisita bakoitzaren ondorengo gorputz-miaketa integrala, eta baldintza horien aurrean defendatzeko baliabide eraginkorrik eza.

-GEEHren 3. artikulua (torturaren debekua): urraketa.

-GEEHren 13. artikulua (bidezko errekurtsorako eskubidea): urraketa.

Demandak Fresnesko (Frantzia) Atxiloketa Zentroan atxilotutako sei pertsonak jarri zituzten, pilaketa-egoeratik eta bisita bakoitzaren ondoren egiten zitzairen gorputz-miaketa integral sistematikoagatik, bai eta jardunbide horiek aurkaratzeko baliabide eraginkorrik ez izateagatik ere; izan ere, ezin izan zituzten agortu GEEAra jotzeko barneko bide judizialak. GEEAk Frantzia dagoeneko kondenatu zuen pilaketa-egoeratik eta Fresnesko Atxiloketa Zentroko atxilotuentzako baliabide eraginkorrik ez izateagatik [J.M.B. eta beste batzuk versus Frantzia](#) epaian, 2020ko urtarrilaren 30ekoa. Demanda gehiago jarri ondoren, hiru demandatzailek ebazpen-akordio adiskidetsua sinatu zuten Frantziako Gobernuarekin, kalte-ordain bat ordaintzearen truke.

GEEAk adierazi zuen gorputz-miaketa integral sistematikoaren aurkako demanda, torturaren debekuaren urraketa gisa (GEEHren 3. artikulua), ez dela onargarria, demandatzaileak ez zirelako barne-bideak agortzeko Frantziako behin-behineko neurrien prozeduraren (*référé-liberté* izenekoa) menpe jarri. Auzitegiaren iritziz, prozedura hori baliabide eraginkorra eta erabilgarria zen demandatzaileek jardunbide horren xedea galdegiteko. GEEAk horixe Frantziako Estatu Kontseiluaren jurisprudentzian oinarrituta ondorioztatu zuen. Horren arabera, behin-behineko neurrien epaileek aztertzen dute atxilotu bati miaketa-araubidea aplikatzeko beharra eta proportzionaltasuna, hala banakako neurri gisa, nola espetxe-jardunbide administratibo gisa, haren duintasunaren aurka egiten duen ala ez zehazteko. Behin-behineko neurrien prozedurak aukera ematen dio administrazio-auzitegiari presako ebazpena emateko, larritasun handiko egoeretan amaiera emateko oinarritzko askatasun baten urraketa larri eta ilegalari. Auzitegiak azpimarratu zuen demandatzaileek arrazoia zutela atxilotetan egindako gorputz-miaketen jakinarazpenik edo trazabilitaterik eza deitoratzean. Hala ere, praktikan, hutsune horrek ez zion eragiten beren errekurtsio-eskubideari.

Hala ere, GEEAk egiaztatu zuen demandatzaileak Fresnesko Atxiloketa Zentroan atxilotuta egon zirela [J.M.B. eta beste batzuk versus Frantzia](#) kasuko demandatzaileen epe berean, eta, beraz, Auzitegiak adierazi zuen ez zuela arrazoirik ikusten kasu honetan bestelako ondoriorik ateratzeko. Horrela, Auzitegiaren iritziz, demandatzaileek jasan zituzten atxiloketa-baldintzek —ikus pilaketa, ez gorputz-miaketa— eta atxilotetaren uean prebentzio-baliabide eraginkorrik ez izateak beren eskubideak urratu zituzten (GEEHren 3. eta 13. artikulua).

Datuen segurtasuna / babesa

GEEA

9. [Glukhin versus Errusia](#), 2023ko uztailaren 4a (demanda zk.: 11519/20)⁵

Eskatzailearen datu biometriko pertsonalak justifikaziorik gabe tratatzea, aurpegi-ezagutzako teknologia oso intrusiboa erabiliz arau-hauste administratibo baten ondoriozko prozedura batean, hura identifikatu, aurkitu eta atxilotzeko.

-GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea): urraketa.

- GEEHaren 10. artikulua (adierazpen-askatasuna): urraketa.

Hauxe da ordena-indarrek aurpegi-ezagutzako teknologia erabiltzeari buruz GEEAk emandako lehen erabakia. Kasu honetan, demandatzaileak manifestazio bat egin zuen bakarrik Moskuko metroan, eta poliziak bere ekitaldiaren argazkiak eta bideo bat aurkitu zituen Interneteko ohiko kontrol batean (irudiak Telegrameko kanal ireki batean argitaratu ziren). Demandatzailearen arabera, poliziak aurpegi-ezagutzako teknologia erabili zuen Telegrameko kanaleko pantaila-irudietatik abiatuta identifikatzeko, eta metroaren geltokietan instalatutako zaintza-kameren bideo-grabazioak jaso zituen. Irudi horiek administrazio-bideko froga gisa erabili ziren demandatzailea kondenatzeko, ez baitzuen jakinarazi manifestazio bat egiteko asmoa zuenik. Barneko bide judizialean errekurtsua jarri zuen, baina ez zuenez ezer lortu, Estrasburgoko Auzitegira jo zuen. Epai horren gainbegirada Auzitegiak aurpegi-ezagutzako teknologiaren erabilerak intimitaterako eskubidean duen eragina aztertzean oinarrituko da, nahiz eta epaiak manifestatzeko eskubideari buruzko beste gai batzuk ere jorratzen dituen (GEEHren 10. Artikulua, adierazpen-askatasunari buruzkoa).

GEEAk adierazi zuen Errusiako agintariek aurpegi-ezagutzako teknologia erabili zutela manifestari baketsu bat aurkitzeko eta kondenatzeko, eta horrek demandatzailearen intimitaterako eskubideak urratu zituela (GEEHren 8. artikulua). Auzitegiak badaki demandatzaileak zailtasunak izan zituela aurpegi-ezagutzako teknologia erabili zela frogatzeko⁶. Errusiako araudiak ez zuen polizia behartzen teknologia horren erabilera ofizialki jasotzera; agintariek ez zuten azalpenik eman eskatzaile hain azkar identifikatzeko erabili zituzten neurriei buruz; eta badirudi Gobernuak inplizituki aitortu zuela horren erabilera. Aurrekoa ikusita, Auzitegiak onartu zuen kasu horretan teknologia hori erabili zela, eta ondorioztatu zuen poliziak demandatzailearen datu pertsonalei eman zien tratamenduak injerentzia bat ekarri zuela haren bizitza pribatuan.

Injerentzia hori justifikatuta zegoen ala ez aztertzeko, GEEAk adierazi zuen legedi nazionalak ez zuela inolako mugarik aurpegi-ezagutzako teknologia erabili ahal zen

⁵ Gertakari horiek 2022ko irailaren 16a baino lehen gertatu zirenez (data horretan irten zen Errusia GEEHtik), GEEA gaituta dago demanda aztertzeko.

⁶ Epaian, GEEAk teknologia berrien erabilera arautzen duten hainbat estandar aztertzen ditu, hala nola aurpegi-ezagutzako teknologia, pertsonen giza eskubideetan izan dezakeen eragina kontuan hartuta. Honako hauek jasotzen ditu: Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren txostena, 2020ko ekainaren 24koa, «[Teknologia berriek giza eskubideen sustapenean eta babesean duten eragina bileren testuinguruan, protesta baketsuak barne](#)» izeneko (DOC. A/HRC/44/24); [Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen R\(87\) 15 Gomendioa](#), polizia-sektorean pertsonen datuak erabiltzeari buruzkoa (1987ko irailaren 17an onartua); [Europako Kontseiluaren Aurpegi-aitorpenari buruzko Jarraibideak](#) (2021); [2016/680 \(EU\) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa](#), agintari eskudunek arau-hauste penalak edo zehapen penalak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko xedez datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta [05/2022 Zuzentaraua, Datuak Babesteko Europako Batzordearena](#), segurtasunaren eremuan aurpegia ezagutzeko teknologiak erabiltzeari buruzkoa, 2023ko apirilaren 26koa.

egoeren izaerari, aurreikusitako helburuei, erabil zitekeen pertsonen kategoriei edo datu pertsonal sentikorren tratamenduari buruz. Auzitegiak adierazi zuen aurpegi-ezagutzako teknologiaren erabileraren esparruan funtsezkoa dela arau zehatzak izatea neurrien irismena eta aplikazioa arautzeko, bai eta abusu- eta arbitrariotasun-arriskuen aurkako berme sendoak izatea ere; berme horien premia are handiagoa da aurpegi-ezagutzako zuzeneko teknologia erabiltzen den kasuetan. Kasu honetan, agintariak ez zuten inolako prozedura-bermerik aipatu aurpegi-ezagutzako teknologia erabil daitekeen kasuetarako, hala nola baimen-prozedurak, lortutako datuak aztertu, erabili eta biltegitratzeko jarraitu beharreko prozedurak, gainbegiratze-kontrolerako mekanismoak, eta eskuragarri dauden baliabideak.

Auzitegiak onartu zuen teknologia hori erabiltzeak delinkuentziari aurrea hartzeko helburu legitimoa izan zezakeela, baina gaineratu zuen demandatzailearen aurka hartutako neurriak bereziki intrusiboak izan zirela, batez ere aurpegi-ezagutzako zuzeneko teknologiari dagokionez. GEEAren ustez, protesta baketsuetako parte-hartzaileak identifikatzeko eta atxilotzeko oso intrusiboa den teknologia hori erabiltzeak beldurra eragin lezake adierazpen- eta elkarretaratze-askatasunerako eskubideak erabiltzeari dagokienez. Beraz, Auzitegiaren iritziz, kasuaren inguruabarrek ez zuten frogatu "gizarte-behar premiazkoa" zegoenik aurpegi-ezagutzako teknologia erabiltzeko, ezin baitzen "gizarte demokratiko batean beharrezkotzat" jo.





Zuzeneko arreta emateko bulegoak

Araban

Prado 9 • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Bizente 8, 11. solairua
48001 Bilbo
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate. 19, 1.a
20005 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88